

PROFESSIONAL WOMEN ´S NET WORK BILBAO MANIFESTUA

Gizarteko estamentu guztietan generoari dagokionez lidergo orekatua lortzeko jarri dugu martxan "GIZONAK ERE ONTZIKIDE" proiektua. BAT. EGIZU PROIEKTUAREKIN

Professional Women ´s Network Bilbao (PWN Bilbao) ia jarduera-eremu guztietako emakume profesionalen sare bat da, eta bertatik **dei egiten dugu gizarteko estamentu guztietan genero aldetik lidergo orekatua lortzeko gizonzkoen laguntza eskatuz**. Lider garrantzitsu, ausart eta mobilizatzeko gaitasuna dutenei eta gizon-emakumeen arteko benetako berdintasuna bultzatzeko beldurrik ez dutenei hauxe eskatzen diegu: gurekin bat egin dezatela elkarrekin beharrezko bultzada eta laguntza berezia emateko genero-etena murrizte aldera.

Uste dugu egungo gizarte zirrargarri eta lehiatsuak gero eta erronka handiagoak eta konpondu gabeak dituela aurrean, eta **ezin duela luzarago onartu inolako giza talenturik galtzea**, gizartea hobea, zuzenagoa eta orekatuagoa, sortzaileagoa eta aberatsagoa, anitzagoa eta lehiakorragoa lortzen lagundu dezake eta.

Nahiz eta emakumea unibertsitateetan eta lantokietan sartu den, ekonomiaren lidergoan genero-etena ez da murriztu. Munduko Ekonomia Foroak 2017ko azaroko azken azterketan dioenaren arabera, 217 urte beharko ditugu etena ixteko. Emakumeen talentu guztia hedatzea gizartean eta enpresetan izugarriko aukera da, eta berrikuntza, hazkunde eta oparotasunerako iturria izango da. Argitaratu diren azken azterketen arabera, kalkulatzen da emakumeen talentua bete-betean aprobetxatuko balitz 12 bilioi dolar gehituko litzaizkiokeela munduko BPGri 2015era arte, eta %14 Espainiako BPGri.

Gaur egun, **gizartean aldaketaren motor nagusietako bat enpresak dira**, eta hauek gauzak beste era batera egiten hasten diren neurrian, oro har gizartea ere eraldatuko dute.

Herrialde osoan dauden desberdintasun iraunkorrek azpimarratzen dute premia larria dagoela gizonen eta emakumeek elkarrekin lan egiteko eta gizarte berdinzalearekin konprometituriko enpresa erantzunkideetatik banantzen gaituzten hesiak apurtzeko.

Manifestu honen sinatzaile gisa, bat egiten dugu "Gizonak ere ontzikide" proiektuaren helburuekin eta gure erakundeetan eta gizarte-inguruneetan honako printzipio hauek bultzatzera konprometitzen gara

- 1 Genero aldetik lidergo orekatua sustatzea erabakitze-maila guztietan**
Gure erakundeetako helburuetan eta emaitza-kontuetan sartuko dugu eta berdintasun-planak bultzatuko ditugu beharrezko kultura-aldaketarako tresna gisa.
- 2 Berdintasunez lana eta familia bateragarri egitearen eta erantzunkidetasunaren aldeko antolaketa-estrategiak garatzea**
Honela, erakundeen printzipioetatik hasita, aukera-berdintasuna, hausnarketa eta kontzientziatzea bultzatuz, lana eta familia berdintasunez bateragarri egiteko, malgutasuna izateko eta denbora kudeatzeko programa zehatzekin.
- 3 Jardunbide hobeak partekatzea**
Gauzaturiko dibertsitate-programak eta bere emaitzak beste erakunde batzuekin partekatzea, estrategiak garatzen eta hobetzen lagunduz.
- 4 Neurtzea**
Jarraipen-sistemak sortzea gure aurrerapena neurtzeko; aurkikuntzak partekatzea eta elkarrekin gogoeta egitea ikasteko eta hurrengo urratsak erabakitzeko. Aurrerapen eta lorpen handienak egindako erakundeak ikusgai bihurtzea.
- 5 Lider guztiak, gizon eta emakumeak, aktibatzea**
Hau helburu inklusibo bihurtzea, oharkabeko diskriminazioari buruzko elkarrizketak sustatzea pertzepzio-desberdintasunari buruz, eta formakuntza eskaintzea.

Ohartzen gara denok gehiago egin dezakegula eta egin behar dugula, eta aitortzen dugu 5 konpromiso hauek ez direla erantzun osoa, baina uste dugu urrats garrantzitsu eta zehatzak badirela lantoki anitzago eta berdinezaleagoak eraikitzeko.



PWN | BILBAO
PROFESSIONAL WOMEN'S NETWORK

Professional Women's Network Bilbao

PWN Global munduko profesionalen sare bat da, **irabazi asmorik gabea** eta lidergo orekatua lortzeko gizarte-katalizatzailea.

PWNek gizon eta emakume profesionaleri laguntzen die sektore eta industria guztietan. 3.500 kide baino gehiagorekin eta 90 nazionalitate baino gehiagorekin, PWN Global **boluntarioek zuzendutako erakundea** da eta urtean 600 ekitaldi baino gehiago eskaintzen ditu 25 hiritako sareetan. Globalki eta toki bakoitzean, PWNek berrogeita hamarren bat erakunderekin lan egiten du lidergo orekatua eraikitzeko duen estrategian.

PWN-Bilbao duela bi urte sortu zen. Sareak, boluntarioek osatuak, negozioetan emakumeen aurrerapena eta ibilbide iraunkorrak sustatzeko ikuspegi espezifikoa du, gizonak integratuz. Emakumeen agerikotasuna areagotzea du helburu, baita kudeaketa-trebetasunak eraikitzea ere erakundeak generoari dagokionez era orekatuan zuzentzeko, talentuaren %100ekin eta bezero izan daitezkeen %100ekin konektatuta.

PWNetik gure nahia da munduko talentuaren %100 aprobetxatzea ekonomikoki berritzaileagoa, emankorragoa, iraunkorragoa eta zoriontsuagoa izango den gizarteari leku emateko, aldaketaren erritmoa azeleratzea eta gure erkidegoa inspiratzea trebetasun berriak har ditzan, gizon eta emakumeen arteko elkar laguntza sortzeko eta erreformak martxan jartzeko.

www.pwnglobal.net

www.pwnbilbao.net

pwnbilbao@gmail.com